


Iñaki Mendiguren

## Shock doktrina

**E**zagutzen ez duenari biziki gomendatzen diot Naomi Klein-en *The shock doctrine* liburua, luze samarra izan arren –ia 700 orrialde gaztelaniaz– argigarria eta irakurterraza baita. Baina zertaz da liburua? Shock-aren bi ingeniari aurkezten dizkigu hasteko: bat, Ewen Cameron psikiatra, elektroshocken, drogen, eta abarren erabilerak ikertu zituen, CIAk finantzatuta. Helburua? Gizakiaren gogoia eta nortasuna suntsitzea, pertsonaren oroimena ezabatu eta “garbi” uztea, gero hutsetik hasita “berreraikitzeke”. Tratamendurako teknika eztabaidatua psikiatrian, baina eraginkortasun handiz erabilia tortura-zentroetan presoarengandik nahi dena lortzeko.

Eta beste Shock doktorea? Ba, Milton Friedman. Eta liburuan azaltzen zaigu azken 30-40 urteotan muturreko liberalismo ekonomikoa nola zabaldu duten munduan haren ikasle sutsuek –*The Chicago Boys*– shock traumatikoen bidez! Normalean jendeak inola ere onartuko ez litzukeen neurriak, shock egoerak –herrien gogoia eta nortasuna zeharo ahulduta uzten dituzten horiek– baliatuz ezartzen dira. Zer neurri? Merkatu hutsaren lege gordina, ekonomiaren erabateko araugabetzea, gizarte-babes guztien ezabatzea, herri-zerbitzuak pribatizatu eta multinazionalen negozio-iturri bihurtzea, sindikatuak indargabetzea... Eta hori era guztietako giza eskubideen urraketa eta itzelezko sufri-menduaren gainetik.

Shock egoera horiek izan litezke diktadura bortitzak (Txilen Pinochetena...), edo gerrak (Thatcherrek Malvinetako gerra erabili zuen nazio-sentimenduaz baliatu eta sindikatuak ahultzeko...), edo trantsizio-egoera zailak. Tristeia gertatzen da irakurtzea ANCK Hegoafrikan edo Solidarnosc-ek Polonian, agintera iristean, nola ahaztu behar izan zituzten beren gizarte-programak, ekonomia aurrera ateratzeko ezinbestekoa zuten atzerriko laguntza eskura-



DANI BLANGO

tzeko xantaiapean. Eta N. Kleinek kontatzen du Txinak –gogoratu Tiananmengo sarraskia– edo Errusiak nola lortu duten kapitalismoa ezartzea, izu-ikararen laguntzaz. Eta kontatzen du Asian eta beste hainbat lekutan nola ustiatu dituzten hondamendiak ere, batzuetan naturak eraginak –adib. urakanak New Orleansen, tsunamiak Indonesian...– itzelezko negozioak egiteko; horregatik deitzen du “desastrearen kapitalismoa”. Aztertzen du, halaber, Dorre Bikien (I-11) shocka nola erabili duten multinazionalak etekin lotsagabeak ateratzeko nonahi, terrorismoaren mamua eta segurtasunaren obsesioa xaxatuz. Eta ildo berean, aztertzen ditu Iraken, okupazioaren ostean, ezarritako neurri ekonomiko lizunak, Paul Bremen-en eskutik.

Kasualitatez, Israelen azken erasoekin Gaza odoletan gorri zegoela irakurri nuen estatu juduari eskainitako atala. Batere ez bihotz-altxagarria! Ekonomiaren ikuspegitik Israelek bakerako interes guztia nola galdu duen adierazten du, eta nola segurtasuna eta gerra bihurtu diren hango ekonomiaren zutabe nagusi.

Liburuak zer pentsa asko eman eta aldika ilea lazten dizu. Baina azken atalak bidea zabaltzen dio itxaropenari: “*Shocka* bukatzen ari da: herri-berreraikuntzaren gorakada”, eta Hego Amerikako zenbait herrialdek harturiko bide berriak sartzen ditu hor, baita Chicagoko Eskolaren tresna izan diren Nazioarteko Diru Funtsaren, Munduko Bankuaren eta Munduko Merkataritza Erakundearen gainbehera ere.

Eta liburu jakingarri hau aipatu nahi izan dut egungo krisia ulertzen laguntzen duelako, eta egungo krisiak baduelako shock psikologikotik dezent; beraz, komeni da azti ibiltzea, giro berezi honetaz baliatuz, berriro ere *Chicago Boys*-en errezeta ozpinak irentsi beharrik izan ez ditzagun, berdin da *french*, *spanish* edo *basque* bertsioan izan. ■

Liburu jakingarri hau aipatu nahi izan  
dut egungo krisia ulertzen laguntzen duelako,  
eta egungo krisiak baduelako shock  
psikologikotik dezent; beraz, komeni da azti  
ibiltzea, giro berezi honetaz baliatuz,  
berriro ere *Chicago Boys*-en errezeta ozpinak  
irentsi beharrik izan ez ditzagun